

## ESKOLAKO AGENDA 21

### 2014-2015 IKASTURTEA: "MURRIZTU, BERRERABIILI, BIRZIKLATU"

#### Ikastetxearen konpromisoak eta udalari proposamenak 2014-2015 ikasturtea

##### Konpromisoak 2014-2015

- ✓ Aurreko urteetan hartutako konpromisoak betetan jarraitu
- ✓ Paper kontsumoa murriztu eta papera biltzeko ontzira eroan . Birziklatu egingo dogu eskolan... eta berrerabili, muralak egiteko esaterako. Paper tailerra martxan ipini. Ia astetik astera paper hondakin kopurua gutxitzea lortzen dogun.
- ✓ Janari hondakinak, sobranteak, etxeetara bideratzeko eskaintza egingo dogu, etxeetan ditugun txakur edo animalientzat. Ogia ere.
- ✓ Soberan gelditzen dena konpostagailura eroango dogu
- ✓ Hondakin ontzi bakoitza marrazkien bidez zein hondakin motarako den argi adieraziko dogu.
- ✓ Hondakin ontzien erabilera egokirako kontrol taldea martxan jarriko dogu, adieraziz ondo sailkatzearen garrantzia, ia hondakinak ondo sailkatzea lortzen dogun.
- ✓ Produktu bat erosi aurretik benetan beharrezkoa dogun hausnartuko dogu, gura doguna beste material batzuk berrerabiliz lortzen saiatuko gara ahal bada.
- ✓ Bilgarriak ekidin, bilgarri berrerabilgarriak eta multzokakoak erabili.
- ✓ Ingurumen ziurtagiria duten materialak erosiko doguz ahal dala, ingurumen ziurtagiri ikurrik duten fijatuko gara, eta baita letra txikia irakurri .
- ✓ Osasun kalterik sortzen ez daben produktuak erosiko doguz, eta berrerabiltzeko edo birziklatzeko erreztasuna ematen dabenak.
- ✓ Tokian tokiko produktuen kontsumoa bultzatuko dogu, garraio distantzia txikia egin behar dabenak

##### Arratiako konpromiso bateratuak 2014-2015

*(2015eko maiatzaren 12an ospatutako Eskolen arteko foroaren ondorioz adostutakoak)*

- ✓ Orain artean hitzartutako konpromisoak mantenduko ditugu.
- ✓ Erosketak irispide jasangarriak kontuak izanda egingo ditugu (hondakinen sorrera murrizteko).
- ✓ Hondakin ontzien erabilera egokirako kontrol taldea martxan jarriko dogu, adieraziz ondo sailkatzearen garrantzia, ia hondakinak ondo sailkatzea lortzen dogun.
- ✓ Tokian tokiko produktuen kontsumoa bultzatuko dogu, garraio distantzia txikia egin behar dabenak.

## Proposamenak udalari 2014-2015

(2015eko maiatzaren 20ko Udal foroan Alkateari aurkeztutakoak)

1. Gure herriko etxeetan erosketa iraunkorra-arduratsua egin daiten irizpideak eta informazio herritarren artean zabaltzea.
2. Hondakinen sorrera murrizteko eta hondakinen bilketa selektiboa sustatzeko sentsibilizazio eta formakuntza ekintzak egitea. Baita berrerabilpen eta birziklatzerako.
3. Hondakin organikoak bereizita jasotzeko kanpaina eraginkorra egitea, herritar guztiei eduki ontzi marroia erabil dagiala aholkatu eta eskatuz.
4. Etxeko konpostagailua duten herritarrei konpost egoki bat lortzeko egin beharreko pasuak berriz azaltzea, eta horretarako laguntza gida bat banatzea.
5. AUM-ri Herritarren konpostagailuen kalitatea ikuskatzeko kanpaina bat antolatzea eskatutea, konposta kalitaterako laguntza eskainiz.
6. Udal baraztetako konpostagailuen kalitatea hobetzeko, hondakin organikoen gainean kokatzeko estaldura herritarren eskura jartzea. Hau da, udal baraztetan belar hondakin edo zerrauts zaku bat eta konpostari bueltak eman eta oxigenatzeko bira-gailuak kokatzea.